


IPARRALDEKO MENDIAK

ARABA

A.3

Gorbeia



Gorbeiaiko mendigunea euskal geografiako gune menditsu garrantzitsuenetako bat da, eta oso adierazgarria da ekologiaren eta paisaiaren aldetik. Atlantikoko eta Mediterraneoeko isurialdeen banalerroari dagokio; iparraldera sakan malkartsuak ditu eta hegoaldera, berriz, aldapa leuneko haran zabalak. Enklabe horren balio garrantzitsuenen artean daude hostozabalen, harkaitzen eta kareharrizko paisaietako basoak, enklabe hezeak eta

ur-lasterrak. Fauna ere aberatsa da oso: martin arrantzalea, basurdea, arrano txikia, sai zuria, aztore arrunta, muxar grisa, lephoria, basakatua, igaraba, etab.; halerre, 6oko hamarkadan berriz ekarritako oreinak dira gune honetako protagonista nagusiak. Duen aberastasun naturalaz gain, Gorbeia leku sinbolikoa da bertako elezahar eta tradizioengatik, bai eta euskal mendizaletasunaren erreferentzia-puntu gisa ere.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• Parke Naturala (1994) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

LANERAKO GAIK

- Euskal Herriko Geografia: kokapena, probintzien mugak. Kantauriko eta Mediterraneoeko isurialdeen banaleroa.
- Gorbeiaiko paisaia: paisaia naturala eta gizakiaren ekintzek modelatutako paisaia (artzaintza).
- Saldropoko hezegunea: eremu hezeen garrantzia. Habitat baten gehiegizko ustiapena. Leheneratze—prozesuaren balorazioa.
- Itxina eta karst—a: higadurak eragindako sistema geologikoa. Biotopo Babestua (1995).
- Oreinak Gorbeian: habitat jakin batean espezieak berriz sartzearen adibidea. Ezaugarriak eta ohiturak.
- Basoko landaketak. Erabilera publikoko mendiak: espezie desberdinen ezaugarriak, haien erabilerak, basoko lan nagusiak.
- Lehenengo mendizaleak: Gorbeiaiko gurutzea. Natura—inguruneetako kirol—ekintzak.
- Artzain—kultura: artzaintza transtermitantea, bordak, larreak.
- Gizakia Gorbeian: kobazuloko aztarnategiak, monumentu megalitikoak.
- Usadio eta lanbide tradizionalak: ikazkina, artzaina, karegilea, errotak, elurtegiak, burdinolak, kirikinoak.
- Arkitektura tradizionala: gune txikiak Arabako eremuan eta auzo edo baserri sakabanatuak Bizkaian.